

Ze barri?

2001.ko
IRAILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

53 zkia.

Urlatik Landetara

ZE BARRI?
URLATIK • LANDETARA
O. Astea • 1996ko Ekainak 27



Eska orien daukizuten hau irakurtzeko gustara asmoa daukat nazazuela hilabetero eskura deba gorriaen anai nansiek zabalitzen dute euskera nik ere halaxe egin nahi nuke Gatzagnik Eskoitzara Bertsoa

Gurasoel agar herri berrin Pagadar eta Astroki beste agar bat orain arte bertan irakurle zaren herri gehiago berik zabal nazazu eta goitik behera irakurri nik baitut Urlatik-Landetara geriatzen dagan Ze Barri.


Ze barri?
1996ko AZAROA
Urlatik Landetara

Prestazio Soziala Eskoriatzan
Una! literategi Munduko txapelduna Mexikon
San Miltxoan Gatzagan



Eskoriatzarra txakur leratan garaile

Ze barri?
Urlatik Landetara



**BASERITARREN ETA ARTISAUEN
ESKORIATZAKO 5. FERIE**

Aro berri bat hastera goaz

Ze barri?

2001eko urtarrren 19a


ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGAKO ASTEKARIA

EqubakoItza

Dena gertu astero-astero Eskoriatzako berri emateko herriko aldizkarian



AGAZKARA



LEINTZ-GATZAGA

*lehena eta geroa lotuaz aurrera goaz
zatoz ikustera!*



Informazioa eskatu eta erreserbak egiteko telefonoak:
943 71 47 46 • 943 71 47 92

GATZ MUSEOA

Igandeetan zabalik:

Goizez:

11,30etan (euskaraz)

12,30etan (gaztelerez)

Arratsaldez:

16,00etan (euskaraz)

17,00etan (gaztelerez)



2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINTZA

Euskalduntze maila guztiak.

Alfabetatze.

EGA.

Mintzarena lantzeko talde bereziak.

Sakontze ikastaroak.

ERRITMOAK

Ordu eta erdi, 2, 3, eta 5 ordu.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 3tik 21era.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.

16 urtetik gorakoentzat.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA



ARETXABALETAN

Nafarroa, 2-4

Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62

leintzeuskalteg@terra.es

ESKORIATZAN

Intxaurtxueta, 10 • Tel.: 943 79 21 68



Ze barri?

GURE BERBETAN

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano

KOLABORATZAILEAK:
Aitor Uribetxeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:
2.000 ale

LEGE GORDAILUA:
SS - 200/99

ISSN:
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Martxan berriz be

“Oporrak zelan? Bai, opor-
rrak... lekutan geratu
die!”. Lanera edo esko-
lara bueltan guztiok ibili ditugu berba
horiek edo antzerako batzuk, lanerako itzu-
lera zeinen nekeza egin zaigun besteei
adierazteko. Bizimodu onera samur ohi-
tzen gara, antza. Baina, hala eta guztiz
ere, iruditzen zait, gutako askok hasie-
rako nekealdi hori agudo samar pasetan
ez ote dugun.

Azalduko dizuet: lanean edo eskolan
aste pare bat daramanak, dagoeneko
burua beste orbita baten dauka eta ez, hain
zuzen ere, oporretako leku liluragarri
horretan. Hain dago bere zereginetan
sartuta, ezen oporretan bizitako une hun-
kigarri horiez oroitzeko astirik ere ez due-
la. Ez al da ala? Gainera, pilatutako lan
horiez guztiez gain, beste hamaika asmo
berri ere izango ditu eskuartean.

Guk geuk, esaterako, asmo berri piloa
dakartzkigu Ze barri?ren mesedetan eta
irakurlearen gogoko izango diren espe-
rantzetan. Hasteko, Ze barri?k aldizka-
tasuna aldatuko du; hilabetekari izatetik
astekari izatera pasako da. Baita forma-
tu aldaketa ere; egunkari formatua izan-
go du aurrerantzean eta egubakoitzero
Goienkariaren barruan aurkituko dugu.
Baina tira, ez naiz ni izango berritasun
horiek guztiak azalduko dizkizuena, hobe
izango baituzue ale berria kuxkuxeatu eta
zuen kabuz deskubritzea.

*“Ez al dituzte, akaso,
gurasoek seme-alabak urte-
tik urtera eskolaz kanpoko
aktibitate geroz eta
gehiagotan apuntatzen?”*

Ze barri?ren kasua
adibide partikular bat
baino ez da, ordea,
jorratu nahi dudana gaia
azaltzeko. Kontua da, oporretatik buel-
tan lan edo asmo berriak eskuartean izate-
tea jokabide jeneralizatu bat dela irudi-
tzen zaidala, eta askotan gehiegizkoa
izaten da, gainera. Ez al dituzte, akaso,
gurasoek seme-alabak urtetik urtera esko-
laz kanpoko aktibitate geroz eta gehia-
gotan apuntatzen? Horrela, ohikoa egin
zaigu asto karga daramala dirudien nes-
katila edo mutikoa ikustea. Liburuz bete-
tako motxilaz gain, kirolak ere era-
mango du aldean eta, hori gutxi balitz,
baita ingeleseko edo alemaneko edo erru-
siera klaseko karpeta ere. Horiek astean
hirutan izango ditu eta beste bi egune-
tan, berriz, informatika edo solfeo edo
dantza klaseetara joango da. Oporretatik
pila kargatuta etorri arren, ez ote dira
zeregin gehi-txo, buruan lagunekin jolas
egitea besterik ez duen neska mutikoa-
rentzat?

Baina, nagusiok ere ez gara motz gera-
tzen. Ezta, ni neu ere. Eguneroko behar-
raz gain, aurten hizkuntzaren bat (inge-
lesa edo frantsesa) birziklatu guran, aka-
demiaren baten izena emango dugu. Edo
bestela, informatikako ikastaro batean,
behingoz, gure ordenagailu "lagunarekin"
hobeto konpondu gaitezten. Ah, hori bai!
Estresari aurre egiteko kirola egitea ona
dela eta, ilunkaran gimnasia joango gara
pixka bat izerditzera.

Beno, kontua da, orain oporrek iga-
ro berri, gure burua hain ondo ikusten
dugunez, saltsa maltza gehiegixotan
sartzeko joera izaten dugula. Baina, jakin
beharko genuke, agian, energia leherga-
rri hori guztia nolabait neurtzen, urtea luzea
izaten da eta.

Lorea Agiriano



**TOKI
ALAI
TABERNA**
karajiloetan
espezializatua!!
Tel.: 71 47 29

**SAMON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA**
DORLETA
Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

Hilarriak biribilketan proiektuan sartu da Museo Eskola

Eskoriatzako Museo Eskola hilarrien inguruan antolatuko den proiektu batean sartu da buru-belarri. "Hilarriak biribilketan" proiektua Europa mailakoa da eta Donostiako San Telmo museoa, Baionako museoa, eta Espainia eta Portugalgo beste hainbat museo ere tartean daude.

Egitasmoaren helburua, antzinako estela edo hilarriak ikusi, ikertu eta euren inguruko azterketa zabaltzea da. Hilarriak oinarri hartuta, antzinako hileta errituak eta sinismenak aztertu gura dira: zein zen gure arbasoen sinismena jakin, hilarriek zein sinbolo dituzten aztertu, pertsona bat hiltzerakoan egiten ziren errituak... Euskal ondarearen ikuspuntutik abiatuta, Europako kultur ondarearen lehen, orain eta geroari buruzko hausnarketa egingo da. Eskoriatzan, gainera, hilarrien gaia zabaldu egingo dute eta argizaiolak eta kanposantuak ere aztertuko dira. Isabel Guri-di Museo Eskolako arduradunaren esanetan, "irteera egingo dugu Apotzagara. Izan ere, hilerria, nahiz eta berria izan, euskal kulturaren oinarriak kontuan edukita egindakoa da. Horregatik da borobila, Kromlech-ak bezalakoa, barruan harrizko hilarriak ditu eta bakoitzak baserriaren izena eta bertakoen ofizioa adierazten duen irudia dauka". Hilarrien inguruko jardunaldi hauek Eskoriatzako Udazken Kulturaleko programaren barruan sartu dira eta ikastetxeetan egingo diren tailerrez gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera. Interesa daukaten guztiek, Museo Eskolan eman dezakete izena eta taldeak osatuko dira urri eta azaro bitartean lan egiteko. Erakusketa ere antolatuko da Museo Eskolan.




Hileta errituen gaineko txokoa antolatu da Museo Eskolan.

Denboraldi berrirako kirol eskaintza prest

Denboraldiari hasiera eman diote kiroletxean eta kirol eskaintza bikaina antolatu dute eskoriatzarrei begira. Adin guztietako herritarrak hartu dira kontuan eta ume, heldu eta hirugarren adinekoentzat egokitutako jarduerak daude. Sasoian daudenek aerobika egin dezakete, kirol hori gogorregia dela uste dutenentzat, ostera, mantenimenduko gimnasia antolatu da. Ezinduentzako eta erretiratuentzat bereziki prestatutako gimnasia ikastaroa ere badago. Bazkideek 3.100 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 4.150. Eskoriatzarrak animatzen badira, bestalde, roler ikastaroa antolatuko da eta Gipuzkoako Federazioaren eskutik ur sorospen ikastaroa ere eskaini gura da. Azkenengo hau 16 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da, baina horretarako froga fisiko batzuk pasatu beharko dira eta 35.000 pezeta ordaindu. Ikastaro hauetara datozenak, gainera, masaje mota ezberdinak eskaintzen dituen profesionala ere izango dute aukeran. Horrela sihatsu, akupuntura eta masaje orientalaren onurak probatu ahal izango dituzte.



Fagor Ederlan, S.Coop



Gaztainadui, 42
20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 90 00

AUTOENDAKO OSAGAIK

Energia berriztagarrien inguruko tailerrak

Eskoriatzako Museo Eskolak eta Arrasateko Mugarik gabeko injenarietako antolatuta, energia berriztagarrien inguruko bigarren jardunaldia egingo da datorren astean. Lehenengoa Eskoriatzan egin zen eta izandako arrakasta ikusita, orduan sortutako kezkak asetu eta gaiak zehatzago lantzeko antolatu da bigarren hori. Lau eguneko ikastaro praktikoa izango da: energia termodinamikoak, fotobol-taikoak eta eolikoak aztertuko dira, eta irte-
era bat ere egingo da martxan dauden hainbat instalazio aztertzeko. Ikastaroa Arrasateko Lanbide Eskolan emango da eta jadanik ez dago parte hartzeko lekuri-
rik. Hala eta guztiz ere, interesa izanez gero Museo Eskolara deitzeko izena emateko dio Isabel Guridik, aurrerago ere antolatuko dira eta hirugarren jardunaldiak.

Euskaltegiak egoitza berria dauka


Leintz udal euskaltegiak egoitza berria dauka 2001-2002 ikasturterako. Aurten arte ez du sekula egoitza egokirik izan eskolak emateko, herriko plazako erai-
kinean baldintza eskasetan ematen ziren eta Kultura Etxea ere ez zen lekuri apro-
posena. Hori dela eta, eskoriatzar asko Aretxabaletako euskaltegira joaten zen euskarazko eskolak hartzera. Hemendik aurrera, oster, Intxaurtxueta auzoan egongo da Eskoriatzako euskaltegi berria eta kanpora joan beharrik izan gabe ikas-
turte osoa emango da bertan.

Jai giroa eta anaikidetasuna nagusi Andramaixetan

Parte hartze handiarekin eta giro onean ospatu zituzten gatzaga-
rrek Andramaixak. Zapatu gaueko rock kontzertuan ez zen espe-
ro zen beste jende ibili, baina osterantzean bai, batez ere egunez
eta baita gaueko erromerietan ere. Duda barik, zapatua, irailak 8,
izan zen egunik onena. Dorletako amaren elizaren inguruan, esa-
terako, jende asko bildu zen. Otxandixotarrei ongi etorria egin eta
gero, meza izan zen. Setien gotzaia izandakoa ere bertaratu zen
Dorletara. Meza ostean, berriz, Lizaso eta Egañaren bertsoak.
Oro har, beraz, ondo joan ziren jaiak. Nabarmentzea merezi duten
ekitaldi batzuk: Herri bazkaria, umeendako jolasak, pilota parti-
duak, Araiako musika bandaren emanaldia...



BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrirra eginiko edozelango lanak egiten ditugu

Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8 • Tfnoa.-Faxa: 943 788178
20560 ARETXABALETA (Gipuzkoa)



DHARMA

YOGA ZENTRUA

Ikasturtea
hasi dugu

Aranburuzabala, 24 behea
Tel.: 943 71 48 79
ESKORIATZA



Ze barri? astero!!



Urriaren 19tik aurrera *Ze barri?* astero jasoko duzue zuen etxeetan. Eskoriatza eta Leintz Gatzagako etxe guztietara helduko da egubakoitzero. Esan genezake, hortaz, aro berri bat hasten dela egun horretatik aurrera. Izan ere, azken bost urteotan hilerro jaso dituzue bi herrietako berriak. Aurrerantzean, ordea, fesoago helduko zaizkizue. Urriaren 19tik aurrera ezer ez da berdina izango Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan.

Aldaketa handia izango da, ez bakarrik maiztasunari dagokionez, baita formatuari, lan egiteko moduari edota lan taldeari dagokionez ere. Esaterako, orain arte *Ze barri?* Din A4 edo aldizkari formatuan egin bada ere, aurrerantzean Din A3 edo egunkari formatuan egingo da. Bestalde, *Goienkariaren* barruan joango da, *Aretxagazetarekin* batera. Hortaz, ibar osoko albisteak biltzen dituen eta Debagoieneko herri denetan banatzen den 24 orriko atal komunarekin batera, barruan, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako berriak jasoko dituzue, 12 orrialdeko edizioan. Guztira, 36 orriko egunkari formatuko astekaria jasoko duzue.

Aretxabaletako edizioa

Goienkariak, herrietako hiru edizio ezberdin izango ditu: Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletakoa. Lehenengoan, Arrasateko eta Aramaioko berriak jasoko dira eta 24 orrialde izango ditu. Bigarrenean, Bergarako, Antzuolako eta Elgetakoak; honek ere 24 orrialde izango ditu. Aretxabaletako edizioan, azkenik, Aretxabaletako bertako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagakoak jasoko dira, eta esan bezala, 12 orrialde izango ditu. Horietatik 3, oso osorik Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako albisteentzako.

Albisteak, iritzia eta zerbitzua

Baina, Eskoriatzak sortzen du astekari batentzako adina informazio? Horixe da, hainbati entzun izan diogun galdera. Baietz esango genuke. Kontuan izan behar da, astero sortzen diren albisteez gain, agenda, zerbitzu-informazioa, eskoriatzarren iri-tziak, elkarrizketak, gai historikoak edo atemporalagoak direnak, erretratu zaharrak, kanpoan bizi diren eskoriatzarren gainekoak..., hau da, era askotako berriak jasoko direla. Sail batzuk asterokoak izango dira, hau da, albistea sortu eta berehala kontatuko dizuegu, edo ohar eta deien berri puntuala izango duzue.


Baina, beste sail batzuk ez dute asteroko maiztasuna izango. Horrela, bada, astero informazio puntuala jasotzeaz gain, entretenitzeko edo hausnarketarako aukera ere izango duzue.



**REPARACIONES
LENIZ, C.B.**

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 715061



**RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."**

Denda:

Santa Ana, 17

Tfnoa-Faxa: 943 714165

Tailerra:

Santa Ana, 12

Tfnoa-Faxa: 943 714112

ESKORIATZA



Lan talde profesionala

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako berriak jasoko dituen edizioa Aretxabaletan egingo da, gaur egun Aretxagazeta egiten den erredakzioan. Komertzialaz gain, hiru kazetari ariko dira lanean. Aintzane Gardoki izango da ordezkartzaren arduraduna eta berekin batera Mirari Altube eta Ama-goa Lasagabaster ariko dira, azken hau egun erdiz, GOITBrako ere ibiliko da-eta. Edozelan ere, lan talde honek hainbat herritarren laguntza izango du, kolaboratzaile ugari izango baitu edizio berriak. Edozertarako, honako hau duzue telefonoa: 943 79 86 21. Mezuak, oharrak, deiak, albisteen berri eta abar, honako helbide elektronikora ere helarazteko aukera izango duzue: zebarri@goiena.com. Horretaz gain, Eskoriatzan bertan ere jaso ahal izango dira, *Ze barri?* eta Axtrokiren egoitzan. *Goienkariaren* hiru ordezkartzak, hau da, Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletakoa sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

Herri prentsan eredu

Gaur egun, herri aldizkari gehien dituen eskualdea da Debagoiena: zazpi, hain zuzen ere: *Arrasate Press*, *Berrigara*, *Aretxagazeta*, *Kontuola* (Antzuola), *Kontzejupe-tik* (Oñati), *Ze barri?* (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta *Goibekokale* (Elgeta). Herrietakoez gain, bailara osoan banatzen den astekaria ere bada: *Goienkaria*, euskaraz idatzitako komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena duena (20.000 ale). Oñatiko *Kontzejupe-tik* izan ezik, gainerako guztiak Goienak kudeatzen ditu.

Beste arlo batzuetan bezala, herri prentsan ere aitzindari izan da eskualde hau. 1988an Arrasate Press sortu zen, eta azken hamarkadan hainbeste ugaldu diren tokian tokiko aldizkariendako eredu izan da. Euskara elkarte

eta herri administrazioen lankidetzari esker, gure bailaran beste inon baino herri aldizkari gehiago ditugu. Denak euskaraz idatziak.

Baina, herri guztietan ez dute maiztasun berarekin jasotzen herrietako berriak. *Goienkaria* da astero herri guztietan banatzen den aldizkari bakarra. Arrasaten eta Bergaran ere astero jasotzen dituzte euren herrietako berriak. Beste herrietan, hamabostero edo hilero. Hortaz, aldizkari guztiak asteroko martxan jartzea da Goienak, prentsa arloari dagokionez, duen lehenengo helburua. Urriaren 19tik aurrera izango da hori.



Golo
gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki, 3/ Tel.: 71 31 29/ Eskoriatza 20540

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure Zerbitzura

1. Ze barri? astekari izateak zer eskainiko digu?

2. Zein informazio gehituko zenuke (nahiko zenuke)?

3. Formato aldaketak harrera ona izango al du?



Mari Karmen Arrieta

Euskara teknikaria

1. Freskotasuna. Hilabetekariak gehienbat gertatu dena kontatzen du. Astekariak, berriz, epe motzean gertatuko denaren berri emateko ere balioko du.
2. Uste dut herriak baduela nondik tiratu: asteroko azoka, unibertsitatea, ikastetxeak, herriko kirolariak, udal jarduna... Indarrak eta ideiak bateratu eta koordinatu beharra ikusten dut herriari atera dakioken etekinik handiena ateratzeko.
3. Ezezkotan nago. Aldizkari formatua erosoagoa eta erakargarriagoa da. Gainera, egunkari formatuan beste maila bateko notiziak ikusten ohituta gaude eta Ze barri? egunkari gisa kostatu egingo zaigulakoan nago.




Jose Iñazio Ugalde

Aldatz tabernako jabea

1. Ez dakit zer eskainiko digun. Beste egunkari batzuetan ere oso gutxi agertzen gara ez delako herrian albisterik egoten, beraz, ez dakit astekariak zer ekarriko duen.
2. Askoz gehiago ez dut uste gehitu daitekeenik, baina herritarrek kexatzeko edo Udalari zer edo zer eskatzeko txoko bat falta dela iruditzen zait.
3. Egunkari formatura ohitzea kosta egingo zaiola jendeari uste dut. Aldizkari formatua esku artean askoz samurrago erabiltzen da, bestea, berriz ez da hain erakargarria.

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 *fundazioa*
fundación

 **Charter**

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3

tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 t'erdietara
eta 17etatik 20etara



Olatz Arrese

Ludotekako arduraduna

1. Ez dakit Eskoriatzak astero-astero aldzkaria kaleratzeko beste albiste emango duen. Hala eta guztiz ere, aldaketa hoberako izango da. Hilabetekarian albiste asko oso atzeratuta geratzen dira. Astero kaleratuz gero, berriz, ez dute egunerokotasuna hainbeste galduko.
2. Umeei zuzendutako ludotekaren inguruko galdera batzuk, umeak ere aldzkariak irakurri eta erabiltzen ohitzen joateko bide bat izan daiteke. Eskoriatzan auzoetako baserriak oso urruti geratzen zaizkigu eta herritar askok Eskoriatzako auzoak zeintzuk diren ere ez daki, beraz, hauen inguruko informazioa ere egokia izango litzateke.
3. Ez dakit, *Aretxagazetarekin* batera datorrela uste dut, oso ondo bereiztu gabe, eta hiru orri ere ez dira asko. Interesa daukanak topatuko du, baina bestela gordeta geratuko dela iruditzen zait.


Josu Azkarate

Gazteria eta ingurugiro zinegotzia eta *Ze barri?*ren sortzaileetako



1. Lan gehiago bai, behintzat. Hilabetekarian lan egiteko era bat dago, eta astekaria izateak asko aldatuko du hori. Albiste falta ez da egongo, ez horixe, Udalean bakarrik albiste asko sortzen dira eta, baina lana egin beharko da albiste iturriak bilatzeko.
2. *Ze barri?* sortu zenetik aldatuz joan da eta barruko atalak ere poliki-poliki garatzen joan dira. Momentu honetan, ondo dagoela iruditzen zait. Hala ere, komikia gehituko nuke, bero-bero dagoen albiste bat txiste eran kontatua ondo legoke.
- 3.- Bai, zergatik ez? Hala ere, *Ze arri?* bukatu dela pentsatu behar dugu. Hau ez da *Ze barri?*ren jarraipena, edizioetako *Goienkariaren* hasiera baizik. *Goienkariak* eskualdeko albiste orokorrak landuko ditu eta Eskoriatzak bere atala izango du barruan. Orain arte, gainera, ez gara gehiegi agertu eta hemendik aurrera astero-astero ikusiko ditugu herriko albisteak.

FAGOR



ELEKTRATRESNA

TXIKIKO

NEGOZIOA

Aingeruguarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

5 urte argazkitan


Aldaketez betetako ibilbidea hartu izan du Ze Barri?-k orain bost urte jaio zenetik. Baliabide gabe eta lau orrialdeko hilabetekaritik hasita, pausoz pauso aurrera egin du aldizkariak, orrialde kopurua gehituz lehendabizi, zuri beltzetik koloretarako saltoa emanez gero, lanerako orduan ere sekulako eboluzioa izan dugu: egoitza aldaketa, kazetarien lana, baliabide berriak. Orain beste salto bat emateko ordua iritsi da. Hilabetekaritik astekari izatera aldatuko da Ze Barri? bere orriak ere ezberdinak izango dira eta lan egiturak ere aldaketa nabarmenak izango ditu. Momentu ona da beraz orain arte gurekin lanean aritu eta zuen laguntza eman diguzuen guztioi eskerrak emateko. Aurrerantzean ere gurea izaten jarraituko duen aldizkarian atea zabalik eta laguntza jasotzeko beti prest izango gaituzue.



Apaiz berria.



Alkate aldaketa, Eskoriatzan eta Gatzagan.



Zebarri? 0. alea



Zebarri? 25. alea



Zebarri? 50. alea

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hnos. SAJERAS, C.B.

MARGOGINTZA
DEKORATIBO ETA INDUSTRIALA

San Pedro, 14 behea
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

ZE BARRIK? 5 URTE



Ganuz Jauregia ikastola bihurtua




Gatzagako gatz fabrika.



San Viator unibertsitateko fakultate bihurtua.



Kolektorearentzeko lanak.



Igerilekuak.



Merkatu justua.



Txikirri - txikirri mendi martxa.



Euskal presoan aldeko baraualdia.



Talde batzuk joan (Gorosarri dantza taldea) eta beste batzuk etorri (ATXORROTS ONGA, ESKORRIATZAKO GASTE ASANBLADA)

Villar
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORRIATZA

Larmanta

Lentzeria eta
Umeen moda


Gaztañadui, 21
Tel.: 943 71 53 87
ESKORRIATZA
(Gipuzkoa)

**Ze barri? eta Goienkaria irakurtzen dituzu?
Zer iruditzen zaizu Ze barri? datorren hiletik aurrera Goienkaria barruan eta astero kaleratzea?**



Maria Fernandez
Langilea

Ze barri? irakurtzen dut eta *Goienkariari* ere begiradatxo bat botatzen diot. Ondo iruditzen zait aldaketa, nik berdin-berdin jarraituko dut irakurtzen.



Haritz Oianguren
Ikaslea

Bai biak irakurtzen ditut. Orain dagoen moduan gustukoa dut, beraz, barruan dauden atalak ez aldatzea eskatuko nuke.



Josema Balbas
Langilea

Biak begiratzen ditut. Ondo iruditzen zait aldaketa eta gero ere biak irakurriko ditut. Onerako izango da aldaketa.




Agurtzane Quiles
Ikaslea

Bai irakurtzen ditut. Ondo iruditzen zait, *Ze barri?*n albiste gutxi etorten dira eta gurago dut *Goienkaria*. Gero biak batera badatoz, hobeto.



Leire Zubizarreta
Ikaslea

Bai biak irakurtzen ditut. Ondo iruditzen zait biak batera etortea baina *Ze barri?*rentzat hiru orri besterik uztea ez dut uste nahikoa denik.



Haika Aizpurua
Ikaslea

Bai irakurtzen ditut. Nahiz eta hiru orri izatera pasatu, astero-astero kaleratuko denez aldaketa hoberako izango dela uste dut.



MIRVAT S. Coop. Ltda.

Aingeru ibiltokia, 41
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 45 06
Faxa: 943 71 50 05

ESTETIKA
ESPEZIALIZATUTAKO
ZENTRUA

EDURNE



Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

Zer irizten diozu Ze barri? formatuz eta maiztasunez aldatu eta Goienkaria barruan astero kaleratzeari?

Urte askotako ibilbide aberatsa

Iritsi zait azkena. Debagoieneko herri-aldizkariaren batze-prozesuak langabeziara garamatza albokoa eta biok, baldin eta ez badugu proiektu berrian tartetxoren bat eskuratzen, behintzat.

Ez dakit zenbat izan diren kolaborazioak, baina iazko martxotik-edo uste dut nabilela hilabeteroko tartetxo hau ahalik eta modu duinenean bete guran. Lortu ote dudana ala ez (duintasunarena, jakina, ez betetze hutsarena) beste kontu bat da, eta ez dagokit niri balorazioa, irakurleari baino. Eta hemen, hain zuzen ere, sortzen zait kezka: irakurri ote nau inork? Lortu ote dut modu ulerkorreen idazterik?

Jakin badakit-ondo erroldatuta ditudalako-, hamar-hamabi bat irakurle behintzat banituela, tartean alboko plumillia eta nik

“Eta nik? Ze demontre eiñ laiket nik? Ze esangotzuet ba, holako hondamendixa ikuzixaz neure malko artien ittoten ez ba naz, ba tira...”

neuk aholkua eskatu guran alde zaureratik irakurtzeko esaten nien beste bizpahiru. Hauetaz gain, besterik egon den ala ez ezin jakin. Banakaren bat edo beste egongo zen, baina, auskalo!

Dena den, idazteko aukera hutsa bada, besterik gabe, eskerrezkoa. Oso gutxitan sortzen da maiztasun jakin batekin gai baten inguruan zure iritzia plazaratzeko aukera. Une honetan asko lirakeke gai letrak modu koherente eta zuzen samarrean juntatu eta bere iritzia paper batean jartzeko, baina niri eskaini didate tokia oraingoan; eskerrik asko dagokionari. Beste kontu bat da gero jende askok ala gutxi irakurtzen duen, eta horretaz gain, norberak idatzitakoak beste norbaiti zer pentsatu ematen dion ala ez, zurekin bat datorren ala ez.

Eta esker txarrekoa ez naizenez, ofizioa eta etorkizuna ukatzen dizkidan Goienkaria osatu eta berrituari urte askotako ibilbide aberatsa opa diot beste eskualde batzuetarako ere eredu izan dadin, eta bide batez, baita eskatu informazioan objektibotasunez eta iritzian zabaltasunez jardun dezala. Hori guztia mutur bateko kirtenek eta George Bush II.a Gazteak antolatutako Mugagabeko Justizia edo Mendekua edo dena delako kanpainan militar horrek kontatzeko, kantatzeko eta Goienkaria berriaren bilakera behatzeko kristaurik uzten badute, behintzat. Hala bedi.

Ballarizaziñuak “Ze barri? jan dau

Agur Ze barri? agur. Badok ba, eh!?. Lau letra juntatzearen biheleku honi gustua hartzen hasi orduko, izorrai!. Ointxe lumia zorrotz-zorrotz, teklutako teklak olixotu barri, inprimagailua toner eta orritz gainezka, edozeinen mormoxeta tristetik 2.000 karaktereko artikulutxua eitteko abilidadia landuta eta... alaporai!, Ze barri?ko atiek morroko eta krixketaz itxitta. Zera esan doskue, “ez dugu Ze barri?ko atea itxi, komunikazio alorrean garai berriei zabaldu diegu atea”. Lotsan falta jakiena erretolikan sobra daukie. Egi berdaderue hauxe da: “ballarizaziñuak” Ze barri? jan dau. Eta txarrena, zebarrikiok bere pioi bihurtzeko asmua ei dauko. Arreglauta daz!. Ez gaue ondotox ezauketan.

Gari eta aldameneko Jone, besteik ezien, Udalatxetik parapentien salto eiñ eta BBVaren raskazielosaburuaz joteko kapaz die.

“Ofizioa eta etorkizuna ukatzen dizkidan Goienkaria osatu eta berrituari urte askotako ibilbide aberatsa opa diot beste eskualde batzuetarako ere eredu izan dadin”

Ulia eukienien dardara baten utziko euien ditxozosko raskazielosaa, baina oiñ, amortiguaziño barik, jo-ta-behera fijo.

Iñaki A. eta Juanma P.k, bixak modernoak oso, teknologia erabiliko dauie erasorako, seguru. Baillarako finantzen bihurtzari astinddu bat emuten saiatuko die: Cajalaboraleko Perretxikuari ziber-erasoa jo edo radixoz maneja utako abioiren bat goititik behera botako dotzie... edo bixak batera.

Lorea A.k, gure mataharixak, polizien peskisak ezerezean ixteko Porru Arrasateko udaltzain burua “neutralizauko” dau. Eta premiñarik balego baita Zubillagako bonbero guztixak be.

A. Ben Goa, guztixaren koordinatzailea, bando bixendako lanien jardun eta gero, Iban A.k Alabittan dauken txabolan aspalditxo ezkutauta dau, Oñatiko Guardiazibilei entzundakua ona einnaz (disen que la frastutura la pone un-tal-Iban). Gainontzeko zebarritarrak “ballarizaziñuaren” betirako porrota ekarriko lauken sikutia lortzeko, edale suizidak letxe, Urkuluko urak zurrupatzeko gertu daz.

Eta nik? Ze demontre eiñ laiket nik? Ze esangotzuet ba, holako hondamendixa ikuzixaz neure malko artien ittoten ez ba naz, ba tira... bestien konpetentziaik ez eta Goienkariaren Eskoitzako korresponsala eingo naz eta horkonpon Marian-ton. A triunfar. Agur Ze barri?, Kaixo Goienkaria!.

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiek ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezaizkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

Hainbat ekitaldi

Urriak 6, zapatua

09:00: Bidaia Donostiara.
Antolatzailea:
Amuska Taldea.

Urriak 11, eguena

18:00: Txan Magoaren emanaldia.
Kultura Etxean.
Antolatzailea:
Kultura Etxea.

Urriak 18, eguena

18:30: Zine foruma: Inocencia Interrumpida filma.
Kultura Etxean.
Antolatzailea:
Amuska Taldea.

Urriak 19, egubakoitza

22.30: Antzerkia: Free-Pelota taldeak aurkeztuko du "El marido de la Pakita".
Jose Arana ikastolako areto nagusian
Antolatzailea:
Kultura Etxea

Urriak 20, zapatua

17:00: Jubilatuentzako txistorrada. Zaharren egoitzan.
Antolatzailea:
"Olazar" jubilatuen elkarte.

Urriak 21, domeka

09:30: XII. Mendi Bizikleta Ibilaldia.
Antolatzailea:
Kultura Etxea

Urriak 24, asteazkena

17:00: Hitzaldia: "Insomnioa eta lo egiteko arazoak".
Hizlaria: Estibalitz Andrio de Elorza mediku gerontologoa.
Antolatzailea: "Olazar" jubilatuen elkarte.

Urriak 25, eguena

19:00: Diapositiba emanaldia "Karabana internazionalista bizitzaren alde". Kolonbia.
Emailea:
Amaia Arrizabalaga.

Futbito Txapelketa

Urriaren 14tik aurrera, zapatu arratsaldero Luis Ezeizan.
Prezioa: 10.000 pta. tadleko.
Izen ematea: Aldatz, Naira eta Cipris tabernetan edo Kiroldegian, urriaren 3a baino lehen.

Sariak:

1. Jasotako diruaren %50.
2. Jasotako diruaren %30.
3. Jasotako diruaren %20.

Antolatzailea: Gazte Asanblada.

Ikastaroa

Euskal ume jolasak eta kantuak. Guraso eta ikasleentzat urriaren 20 eta 27an. Bestalde, azaroaren 3an, guraso eta seme-alabentzako jolas festa. Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara. Izen ematea: urriaren 5a baino lehen, goizetan euskara zerbitzuan eta arratsaldetan, Tortolis ludotekan.

Mintegia

Izarretatik bidaia. Hilarriak eta hileta errituak ezagutzea eta Apotzagako kanposantura bisita. Geure ondarearen ikuspuntutik abiatuta, Europako kultur Ondarearen lehen, oraina eta etorkizunari buruzko hausnarke-ta. Urri eta azaroan zehar. Informazio gehiago: Eskoriatzako Museo Eskolan.



- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingeru-guardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

LOGOPEDIA KABINETEA



- Ahots-arazoak
- Hizketako egintzan atzerapena
- Ahoskatze-arazoak
- Oroimen-arazoak
- Hizmoteltasuna
- Irakurri-idatzi
- Entzefalo-garezur traumatismoak, buru-gaixotasunak
- Azterketa teknikak

Maite Aguilera Elejalde LOGOPEDA

943 71 50 70 • 658 024 076

Dorleta, 10-4.ezk.
20540 **ESKORIATZA**
Gipuzkoa

Taberna eta Jatetxeen gida

Gure Ametsa



943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA

MIRENTXU




Hidalga, 10
Tel.: 943 71 41 67

NAIRA
taberna

Giro atsegina

Aranburuzabala, 16
Tel.: 943 71 46 71

CIPRIS
Pub



Aranburuzabala, 8
ESKORIATZA

TXALAPARTA
taberna




Aranburuzabala, 26

MAULANDA
JATETXEA

Maulanda auzoa
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 47 20
943 71 54 56

LAGUNAK



DASTALEKU
Tlf. 943714063

ESKORIATZA

OTZETA
taberna



Aranburuzabala, 7
Tel.: 943 71 55 07

COMPOSTELA
TABERNA

olagarro
espezialitatea

San Pedro, 12
Tel.: 943 71 48 70



Orain **Eskoriatzan** ireki dugun sukurtsalean aseguru bat kontratatzen duzunean, zuretzat lan egingo duten milaka lagun kontratatzen ari zara. Eta gainera orain, **prezioak eskatzeagatik opari bat emango dizugu.**

Jose Arana, 19
943 71 52 03

www.seguroslagunaro.com



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

Erantzuten duen aseguru

Etxea • Istripuak • Bizitza • Automobila • Aurrezkia